

anaitasuna

BAGILLA (6) 1965 — XI URTEA — Núm. 125 — Dep. Legal S. S. 1092-1959 — Zuzendaritza: Bilbon. — Arantzazuko Irarkolan

Zenbaki

Onetan

1. SEMEA JAKIN-MINEZ DOZU
2. BERBALDITXO BAT AITA BILLASANTEKIN
3. IRU ESTUDIANTE ipuiña
4. ALMIKERI ERANTZUTEN

Gaur: Españan "Accion Catolica"-ko mogimentuak (JOC, HOAC, ACO ta beste parezco andrazkoenak) bizimodu gaxa daroe. Eleiz barruti gitxitan Obispoek sartzen itxi dautsee; ta askok zailtasun asko agertzen deutsez eta sarri ezteutse konsiliariotzat abaderik epinten; beste Obispo batzuk, barriz, gogoz eta borondate guztiz laguntzen deutse ta onexeri eskerrak, gaur mogimentu au indar aundiagaz zabaldu jakula esan geinke.

Baiña ara amen gauza kurioso bat: Mons. Herrera Oriá, danon artean "Obispo social" deituak be nekez bere Eleiz barrutian sartzea itxi eutsen mogimentuaren JOC esandako satiari; ta JOC ori bere Eleiz barrutian bizi bada, bere pastoraletako gogoaren kontra sartua da, ta oraindiño 1965'ko urte orretan eztau Ma-

lagan persona aundien mogimenturik sartzen itxi, esate baterako HOAC-ena.

Alan da be, Toledoko "Cardenal Primado" Mons. Pla y Daniel'ek, zarra izan arren be, parte guztietako kontratasun ta arerioengandik JOC eta HOAC beti zaindu dauz, ta kontratasun orrek badakigu zelan batez be gorien egon ziran sindikal eleziño ta obreruen estu aldietan.

Izan be, danok dakigun lez, JOC, ACO ta HOAC-tarrak azkenengo urte onetan izan diran bierreko okerraldi geienetan eskua sartu dabe, gauzak konpondu egin be egin bear dira-ta, baiña euren ekin aldi orreek olako mogimentu guztien desapariziñoa nai izango daben personalidade ta patroí batzuen kontrea ta are-riotasuna zirikatu dau.

Ta jakiña, mogimentu orren kontra salaketa asko ekarri dira: ofizialezko

eztiran sindikatoen moduan ekin dabela; mundu ontako zeregiñetan sartu dirala, euren ataleko ekin bearra izan ez arren; politika gauzetan sartzen dirala (edozer gauza konpontzen dabillanari gaurko egunotan politika egiten dabillega arpegira botaten jako, arrazoiagaz edo arrazoirik barik); oposiziñoaren sortalekuak dirala; "KOMUNISTEK MOGIDU-TA" dabizela (gaur personaren deretxoak defenditutea komunisten alde ekitea ei data!!!) edo komunisteri asko laguntzen deusela ta abar...

Cádiz eta Ceuta'ko Obispo jaun Año-veros'ek salaketa orreen guzurkeria agertzearren, ("Ya" eta "Ecclesia" periodikoek argitaratu ebezen), deklaraziño batzuek egin ebazan, eta bere indar guztia-gaz mogimentu orreek defendidu:

"Nik, Jocista ta HOAC-tarren mogi-

A. C. - KOAK

Justiziaren alde



Arantzazun bildutako Jozistak dozuz orretxek. Gazetasuna ta kemena agiri agirian dabe bear dan lekuan Kristiñau zuzen lez jokatuteko, ta ain zuzen ez dagozan gauzak arteztuteko. Zorionak eurori!

Gure

arpidedunetatik

Gure arpidedun batek, eskutitz bat egin deusku beren pozak eta kezkek bertan jarriaz. Ondarruko semea bera izan be. Ikusten danez mutil jatorra da. Ona emen zer diñoskun:

“Anaitasunaren zuzendari zarenoi:

Lengo illeko numeroan ikusi neban zuen naia. Neuk be “Anaitasuna” errebista ortan parte artzia nai dot zuek orrela gura dozue-ta. Jun dan aspaldi ontan errebista onen arpidedun naz. Illero illero pozik artzen dot errebista ori.

orain arte —errebista aunditu dozuenik— artikuluak askoz errezagoak eta dotoragoak topaten dotaz. Ia orrela jarraitzen dozuen ba!

Nik konpreniten dot zuek prailleok daukazuena emon bear dozuela, ba iñok eztau emoten eztaukanik. Baiña, ze demontre! eztozue zuek erakurten teoloji edo jaungoikozko gauzak besterik ala? (Parkatu!, ezтира danak jaungoikozkoak eta kontsejuzkoak). Esan nai dotana: erriko problemak ikusi nai doguz errebista ortan. Ortarako nik uste dot erriko gizo-

batzuk. Ametitzen nozue? Nik erriko problemak ipiñiko dotaz eta erriko euskeraz gaiñera.

Bueno, eskutitz au luzeegira doala uste dot. Parkatu zecer txarto esan badot. Zure arpidedun...

MIKEL.

* * *

Bai, Mikel, maitea, ametitua zara gure, edo obeto esateko, zure errebista ontan



BERBALDITXO BAT AITA VILLASANTE-GAZ

Lengo batean berbalditxo bat izan neban Aita Luis Villasante-gaz, ta artu-emon arexen ondoreak gure aldizkaritxorako ondo baiño obeto etorriko ziralakoan-ta, idazteko gogoia artu neban. Gogoia auxe bete nairik, logurea piska bat astinduten dotan bitartean, idaz-lantxo bat atonduten asi naz.

Lenengo gure Aita Luis Villasante nor dogun esan gura neuke, oingoz zuetariko askotxok ondo baiño obeto ezagutuko dozue baiña... Frantziskotarra, ta zintzoa izan be, ainbat denporan Arantzazu-ko Teologoen ikaslaria izan da, ta oraintxe bertan be arlo orrelan jarraituten dau. Jaiotzez Gernikakoa bera.

Udabarriko usai goxua pasioan artuten dogun bitartean asi gara jardunean ta nik gure aldizkari ANAITASUNA-ren goraberatzaz zerbait itaunduten asi nintxakon:

—Ze, Aita Villasante, zer deritxozu gure ANAITASUNA aldizkariari?

—Nik, beste arazo asko ditudanez, gauza andirik ez dot irakurten, baiño ikusten dotana gustaten jat beinipein.

—Or erabilli doguzan gaiak ondo ikusten dozuz?

—Zuek errebistatxo orrelan ezarten dituzuen gaiak interesgarriak dira ziur ziur be. Baiño zerbaiteren falta daukee nire ustean: “Errikotasunarena”. Erriko-

ZUEK

ETA

GU

Goitik beeraño irakurten dot irakurri be.

Arpidedunen eritzia nai dozuen lez ona emen neuria be. Lenengo kezkatxu batzuk jarriko dotaz errebista ortako artikuluengain.

Askotan artikulu gogorrekiak topaten dotaz. Esango neuke teoloji usaiña daukazanak. Arantzazun egiten dan lez, prailleak egingo dabela uste dot eta orixegaitik sarritan praille usaiña be topaten deusat. Baiña, egia esan, azkenengo numero oneitan asko obeagotzen asi zareela uste dot. Aurtengo Urtarrilletik

nak, prakadunak, ez litzakezala txarto etorriko artikulu orrein egille. Olan, errikoak, erriko gauzak esango leukez eta gustorago irakurriko geunke errebista au.

Artikuluak gaiñera, errezak izan bear dabez, au da: artikuluengain gaia erreza izan bear dau, ez sakonegia, ez teologikeri bat. Gai sakonak itxi beste errebistetakoko.

“Anaitasunak” errikoa izan bear dau. Erriko problemak darabilzana. Eta erriko gaiak nork jakin edertoago erriko gizonak baiño? Nik neuk al badot idatziko dotaz artikulu

idazteko. Nai dozuzan gai guztiak erabilli. Guk ezteutsugu aterik itxiko. Errazoi asko daukazu zure eskutitz ortan. Alegiñak egingo doguz ba, zuk eta nik eta beste arpidedun guztiak errebista au obeagotuten.

Eta zuek, gaiñerako arpidedunok, ba-daukazue ezer esateko? Begiratu zer egin daben gure Mikel mutil jatorrak: idatzi. Bai, idatzi, idatzi zuek be. Ondo ametituak izango zari, bai orixe! Errebista onek erriko usain piskat nai dau eroan Mikel-ek diñonez. Ia ba, artu zuek be parte errebista ontan.

(Leengo orritik)

mentuaren eta Jaungoikoaren aurrean dotan arazo augaitik erantzun bearra daukat; orrexegaitik mundu guztiaren aurrean eurek egiten daben bier on guztiak arritu-ta naukala esan bearra daukat eta biotzaren barruko aparteko bedenkazifio bero bat eurentzat daukada-la”.

Ta gerotxuago: “Mogimentu orreita-koak liburu bat ezagutzen dabe: Ebangelioa. Birtute baten ondoren doaz: ta Karidadea da. Kristifiauk lez gauza baten premiña sentiduten dabe, justiziarena ordea. Erregla baten menpean euren buruak lotuten dabez: **Abnegaziñoarenean**. Euren indar eta kemenaren iturria ba-dakie non dagoan: Jesukristorengan. Egoera bat indar guztiekin zaintzen dabe: Zintzotasuna. Ideal bat biotz-biotzez maite dabe: euren anai diran beste biergin guztiak benetako kristifiau biurtzea. Egi bat zabaltzen dabe: eurentariko bakoitzaren argaltasunak”.

Mons. Añoveros'ek badirausku baita zer itxaroten daben JOC eta HOAC'ekoak patroi guztiengandik: “Alkar-berbeta egi-egizko ta zintzo baterako zabalik egon daizala, alkarte bera bat osatuko balebe

lez; empresak kristifiau eran aurrera jo daiala, batez be “Mater et Magistra” enziklikeak adierazten dabezan, eta Ebanjelioak agintzen deuskuzan anaitasun eta maitasunean ibilliaz”.

“Ta patroiek “Acción Catolica”-ren apostoladua euren benetako kristifiau bizitzarekin lagundu dagiela, larregikerizko aberastasunak dakarren zarata ta eskandaloa aldeberatuaz, gizonen arteko justiziaren alde beti ekifiaz, empresa osoa famili aundi baten moduan eratu, guztiak bierrean lagundu dagien, famili baten danak aurrean diran jo-mugak lortzearren ekiten daben moduan alegin-duko dira orduan-ta. bakoitzak irabazte ta erresponsabilidadeetan besteen moduko parte bardifia artuaz. Ta “paternalismo” antzeko ondasun edo karidade faltako joerak aldeberatu daitezela, sarri olako joera orrek justiziaren obligazifioen kontrako eginkizunak tapetako baño ezitrala izaten-da”.

Ta gero, Mons. Añoveros'ek itaune au egiten dau: “Sindikak entidadeengandik zer itxaropen dabe mogimentu oneetari-koak?” Ta berak erantzun be: “Benetako errerepresentabilidade bat, sindikato ori osotuten daben guztien artean egizko konfiantza izan dagian. Onetariko organiazifioetako buru ta erresponsableak

biergifiak eurak edo euren egizko erre-presentanteak izan daizala. Konprensifioa da HOAC eta JOC-eren benetako posizifioa biergin edo obreruen artean. Obreru edo biergin diranak, sindikato edo kopradi ezitiran asozizifio batsuetan sartu-ta dagoz. Ideal bat darabile euren biotzetan: al dabena egin Ebanjelioa benetan bere arpegiz bizitzen: zintzotasuna Jaungoikoaren aurrean eta egiteetara daroan lagun urkoaren maitasuna”.

Ta azkenez, beste itaune au: “Ta autoridadeengandik zer itxaroten dabe?” ta erantzun: “Ba, guztien onaren alde al-dabena, beste jokera bardifia daroen guz-tiekaz batera, egiten dabizan batzuen moduan, artzeko eta ez partidu politiko baten parte formatuko ba-lebe lez, beintzat organiazifio moduan”.

Era onetan, Mons. Añoveros'en ber-beak biergin militante orreen ekintzaren balio ta Ebanjeliotar sua begi aurrean epinten deuskuez, ta batera, betik gora asten diran inziatibak konprendidu ezin dabezan personeri esanak bakarrik goitik bera ezitrala gauz on eta aundi gus-tiak sortuten, baño baita betik gora be, ta sarri munduko edo gizaldi bateko pro-blema guztiak konpontzeko modukoak.

Alfonso Comin'en artikulo batetik.

Berbalditxo bat . . .

tasun ori bear bearrezkoa dozue errikoak leidutea naidozue. Ortarako, bada, gai sakon ta mamintsuak ez ezik baita beste gai leun ta errexagoak be erabilli bear dozuez, arpidedunak gastogustora artu daien.

(Puntu onetan ni ta Aita Villasante gogo bardifnekoak garean ezker eztozu ezta-baidatarako gogorik izan, ta ostera be itaune batzuk luzatu deusadaz...)

—Aita Villasante, sarritan orritxo orretan darabilgun euskerea dala-ta kexka balizuek elduten jakuz... Ze

euskera erabilli bear dogu, banatutakoa ala Bizkaiko utsa?

—Ezta erreza itaune orri-erantzuna emotia, baño neure iritxia emongo dautsuet zearo... Bizkaiko orritxoa danezkero, bizkaieroa utsean jardutea obeto, bizkaitarrak arrera obia egin deioen. Bizkaitar utsa, barriz, Bizkaiko dialetoaz deuz gitxi idazten danez, oso onuragarri izango da Bizkaiko esakerea zainduteko.

—Gure errebistatxoa oso-gotu ta txukunagotuteko ze-

lako gaiak edo temak sartuko leukez berorrek?

—Gaiak ba dira ainbat, eta oso politak... Esate baterako ikusten dira or-amen erriko kanta zarrak, agureen ipuiñak, antziñako erriko esakera ta abar... Gai one-ek, sakon sakonak ez izan arren ba, beste erriko usaiñ apartekoa emongo leuskioe aldizkaritxo orreri.

—Beno, ta amaituteko, zerbaiten kezka danok sentiduten dogunez, nik be gure euskerea galduko ete jakunaren kezka ori dot barruan. Zuk, Aita Villasante,

ze itxaropen dozu euskerearen etorkizunaz?

—Gatxa da esaten. Gagozen garai onetan illun ikusten dot gure euskera maitiaren etorkizun ori, ia erri askotako umiek euskerez berbetan ezta-kieta. Baiña gauzak be aldatu leitekez ta gaur-biar egun onuragarriagoak be etorri leitekez...

—Ederto bete dozu, Aita Villasante, oraingo txandatxoa. Esker onez artuko dogu beti zure argia ta berba ain jakintsua, errebistatxoaren onerako izango da seguru be-ta. Eskerrik asko!

Lurgorri k

Semea jakin-miñez

Gaur ezpada biar jakingo dau zure seme orrek nondik eta zelan etorri dan eta etortzen diran gizonezkoak. Zelan jakingo dau, edo ta zelan jakin dauan badakizu? Ba, jakin eizu zure betebearretariko bat dala onako au. Zuk, guraso zaren orrek egin daikezu ta egin bear dozu zure semeek bide eroso ta on batetik, ta ez kale erdian, giza-jaiotzaren barri jakin daian.

Ba ni medikuak, sendagilleak ekarri ninduan geure etxera! Ba ni kortako sastoki ondoan arkilu ninduen... Ta abar. Onelako amaikatxo entzuten dira umeen españetan. Baiña ez uste izan gero, berba orreik beti ez-jakiñaren ezaupide bat izaten diranik! azpi-joko edo ta jakin-miñaren ezau-garri izaten dira sarriago.

ZENBAKI BATZUK

Zer esanik be ez gaur edo biar guztiak jakiten dabela giza-bizitzaren etorkizunaren barri. Nondik jakiten dabe, ta zelako ondoreak datoz jakin-bide bakoitzatik? garrantzi ta inportantzi andiko galdera auxe.

Españian egin dan enkuesta batek diñoskunez, euneko 6'6-ek bakarrik jakiten dabe euren gu-

rasoen berbetatik; ta lagunen ezpanetatik, barriz, euneko ia 65-ek. Beste danak aldizkari, iztegi ta alakoetatik. Ta az-

kenik bat edo batzuk euren maixu, edo apaizen batengandik.

Jarraitu daigun ondiño zen-



bakiari begira, ta ara zelako ikuskizuna begien aurrean. Bere lagunen aoz ikasi dabenen artetik euneko berrogeta amazortziri kaltegarri eta galkor izan jake jakin bide ori. Aldizkari, liburu eta olakoetan ikasi dabenen artean, euneko 41-ek kaltegarri izan jakela adierazi dabe. Bere amagandik ikasi dabena, barriz, euneko larogeta bik ongarr! izan jakela diño. Beste ainbeste diño maixuengalik ikasi dabenetariko euneko 85-ek.

JOKABIDEAK

Nork, zelan eta noiz erakutsi bear deutse umeeri au dana? Iru joka-tankera emoten dira. Batzuk, or konpon! egin, ta jakin dagiela al daben lekutik, esaten dabe berekiko. Ta jakiña, orduan umeek al daben lekutik ikasten dabe. Beste batzuk, —Noruega ta Suezian esatebaterako— Eskoletan erakusten dautse; ta aín lotsagabeki, ze amar aginduak aztu-arazi —Ienagotik be nazio oietakoak eztakite ta likitzkeri-bideetan aurrera bultzatuten ditue euren gazteak. Azkenik, ba da beste bide bat, bien erditik egiten dauan bidea, bidezko, erazko ta egokia dan bide arteza.

GURE IRAKUBLEAI: ZORIONA

Urte barri ontan, edertua artu dozue zeuen ANAITASUNA illerokoa. Berandutxo, baño len baño ederrago, garbiago eta len ala bikoa.

Askok esan edo idatzi deuskue zorionak emonaz.

Zorion oiek zeuentzat dozue.

Larri ibilli gara. Gitxi dira ANAITASUNA au artuten dabena eta ezin kastuak ordaindu.

Alan be, euskerari eutsi eta bera zabaltzearren edertu egin gura izan dogu. Eta poztuten gara zeuen gogokoa izan dala jakitean.

Orain auxe eskatzen deutset:

1. Laixter asiko gara **ORDAÑAK BATUTEN**. Alegindu zaitze zintzo ordaintzen.
2. **SAL-NEURRIA** aurten **OGETABOST LAUORLOKO** (25 peseta) izango da. Gure oraingo ANAITASUNA len alako bi dogu eta bere prezioak be alan izan bear: 25 peseta. Alegindu gaitezen guziok euskeraren aldeko lan eder ontan.

ZUZENDARIAK.

ZEINĖK?

Ago-betez, gurasoak! erantzun bear dalakoan nago. Gurasoak dira, jaiotzaz gero, euren umeen ardurua izan bear daberen lenengoak; Gurazoei tokatzen jake beste iñori baiño ariñago, euren semeeri asi ta ezitzeko ona litzaien dana erakustea. Ta au gai guztietan bada, aibat geiago gai onetan. Gurasoak zelan erakutsi ez jakitea gertatuko balitz, orduan euren eskatuta, apaiz batek, maixuak edo aideko batek erakutsi bear litzakio. Baiña orduan be obe beste onek gurasoeri eurari zelan erakutsi adierazten badeutse, gero onek euren umeeri azaldu deioen.

Alan da be, umeak onetari-ko batekin bere gurasiekin baiño konfiantza ta uste sako-nago bat balu oba izango da dalako orrek erakutsi dakion. Baiño au sarri, gurasoen erru bat baiño ez da. Au da, esan ez naiez, edo guzurra esaten atrapa ditualako izaten da, geienetan. Umeekin ez da luzamenetan ibilli bear, ta aibat gi-txiago guzur- esaten.

NOIZ?

Geienetan umez beiñ bost urte ezkerre —batez be baserritarra bada, izadiarekin batuago dago-lako— lenengo galderak egiten asten da. Ta ez jakoz entzun-gor egin bear. Erantzun egin bear jako, naiz ta ume itxura andiegia izan. Ori bai, galdetuten dabena, ta ez geia-go.

Ta galdetu ezpaledi? Jakin-guraz, ikusi-guraz, entzunguraz dagoala asmaten baduzu, eldu da ordua. Ez itxaron geia-go; egin-bear baten aurrean aurkituten zara. Beti be izan egizu auxe gogoan: oba dala ariñegi ibilli beranduegi baiño. Klean be, geienetan ariñegi jakiten dabe. Ta oba ete da gero ori?

ZELAN?

Auxe da gaxena. Danadala, beintzal, lilluramenduz, xamur eta naturalki edo bereztasunez adierazi bear deusazu. Beste edozeiñ berbaketa baten bera-

gaz egiten dozun bezala egiñaz; ta batera, poesi-kutsu, ta siñismen-lurrun gozoaren tartean. Ta iñoiz be ez, al dala, nagusi ta agintari itxura artuaz. Besletik, ez litzake erakusketa on-tan abererik aipatu bear.

Guzti au egokiago eroateko, —lenago be esan dot— txikitandik eta beti umeak uste osoa izan bear dabe euren gurasoen-gan. Ta uste au edonoz eta edozeiñ gaietan guzuresanka, entzun-gor egiñaz, erantzunak gerorako itxi-az, eta alakoekin galdu arazten da. Gero alpe-rrikoak izaten dira negarrak eta damuak, edo ta gaurko umeak gurasoen ardurapetik ariñegi iges egiten dabela esatea.

ONDOREAK.

Onela zure seme orrek, maitasunari itzal andi-agoa izango deutso, ta ez dau maitasunetik maitakerira egingo. Ez dau, iñolaz be, maitasun ori pekatu zulo kupiragarri bat balitz lez begiratuko. Orretaz gaiñera, bere bizitza osoan, zure seme orrek, bere estutasun sako-ñetariko baletik zuk atara zenduanaren oroipena gordeko dau. Ta baita gogotik esker-tu be.

* * *

Au dana irakurri arren, badi-teke, ta errez izan be zu zer egin ezean geratutea. Zelan esango, ta zenbatesango aus-nartzen egongo zara bearbada zeure baitan. "Atxaga" apaiz jaunari esker ba dogu euskeraz estutasun ori erabakitze-ko moduko liburu polit bat. GAZTE-TXO daroa izena. Beraren bi-dez jakingo dozu zelakoa bear dan izan zure jokaerea. Ta iñoiz zure semeari berari irakurtzera emoteko be balioko deutso. Victoria-ko seminarioan saltzen da.

Erderaz "La iniciación de los niños en la vida" Angel del Hogar. Desclee de Brouwer, Bilbao. "De dónde vienen los niños?" Pilar Crespo de Arillo. Folletos PPC, Madrid. Ta olako beste batzuk ba dira. Eskuratu egizu baten bat.

ALMIKE.

ANDREAREN

garaia

Aspalditik esaten dan gauza da auxe, aspaldikoa izan be. Esaera naiko ibilli dira aotik-ao gai onetzaz, klase ta gusto danetakoak. Batzuk gozatsuak, beste batzuk gusto txarrekoak.

Izan be andrea berba utsazko balez euki dogu, ta ain berba utsezko tankeran! Andrazko bat berba egiteko saiaturten bazan gortu egiten giñan, txorakeriak bes-terik ezebela esango-ta. Txiste barregarriak egin dira beti andrazkoa berbalari dala-ta.

Baiña gaur andrea zelan esnatuko dabilkigu. Andreak Konzilio-batzar aldeetan ixiltasuna gordetako eztau izan gogorik. Konziliorako zertakisunik eztaukala esaten ebanak izan dira asko. Baita gaur be badira onela pentsatzen dabena. Dana dala, zindotu garala esan leike, ta ezto- gu enpagurik esateko, posible dala andrazkoa Konziliora jotea: joan jaku beintzat.

Andrea argitara jatorku. Izan be, onartu dau Eleizeak adierazten dituan ama-samurtasun ori. Konzilioa-ren gaiak erabilli ditu klean, etxean, jolas-lekuetan, ta nunai.

Badakizue Eleizea "Jaungoikoaren erria" dala. Ta erri au gizonak eta andrazkoak osotzen dabe, ez gizonak bakarrik. Andreak eztau Eleizatik baztertuta egon bear. Nik esango neuke leiotik begiratzeagaz konfor-matu dala.

Orrela ba, Eleizak andrazkoari konfiantza aundia emon deutso. Ta konfiantza emote onok erantzuna eskatzen dau. Esnatzerako ordua iritxi bada, biarko uzlea berandu izan leiteke. Asi gaitezen, bada, gaurlik bertan lanean. Mundua zai beti, gose egarriz dogu.

Beste auxe esango neuke: andrazkoak ez dauela azterketarik egin bere erresponsabilidatearen erantzuna zertarako dan ikusteko. Ta beraz, profesio asko-tan aukerarik eztau idoro. Gai orren barri, galderaz dabil mundua, andrea- ren ekintzak zelakoak diran ikusi daiguzan. Alde batetik Aita Santua deika dator andrazkoak politikan ta beste arduetan azaldu daitezana. Gaurko bizitzak landa guztietan eskatzen dau andrea- ren itzala. Baiña arrazoirik sakonena beste auxe izango da ziur: andrea barruti guztietarako zertxo bat egiteko gertu bear dala, gertu. Zelanbait arduratu daiko politika bizitzaz, gizar-tekoaz ta antzekoakaz. Amendik ez dogu jarraituko lan-toki guztietara abiatu bear dala. Etxeko diruak gitxi-egiak dirala-ta, prestatzen bada lanerako, orduan esan leike gizar-tea gaitz bategaz jota arkitzen dala.

Andre egoki batek esaera agurgarriak ditu bere gain. Iñun bada, esate baterako, etxe egitean bai ikus-ten dala endrea- ren bearra, zein-ek daki berak lege-ze eixe barruak bear ditun neurriak, argitasuna. Batek baiño geiagok barre egingo dau au irakurtzean, baiñan ezta txantxat-akoa. Nork emoten dau, etxea aukera- tzean, azken-engo herbea andreak baiño?



Iru estudiante

Gure ipuinetako estudianteak oker, alper, amarrutsu, zuru zorrozduak izan oi dira guztiak. Onelakoxeak ziran bein Bilbon alkar bat egin ebenak bere. Eukezan diru apurrak irazi, ikasteari itxi, lanerako nagi ta nakar, goian zerua ta bean lurra eukela.

—Zerbait egin bear dogu estualdi onetatik urteteko —zioen.

Euretatik urtenenak.

—Ik —esan eutsan batari—, nondik edo andik ardaoa ekarri egik.

Besteari:

—Ik aragia, nai gelia dala, okela dala, aragia izan daiteala beintzat. Nik ogia ekarriko doat.

Bakoitza bere aldetik gauzon bila asi ziran. Lenengoak zaragi bat, norbaitgandik zuzenduta, urez beterik ebala, ardan-tegi batera bidea artu eban. Txiriboginari (tabernariari) urlia aberatsaren morroia zala esan eutsan ta eukan ardaoa etzala ainbestekoa ta aldatzea gura ebala bere ugazabak.

—Aberatsari edozein mesede egin bear dako ta ekarrik ona zaragi ori ta artuik orren orde berorren esteriako bat.

Estudianteak bere zaragia itxi ta bestea besapean ebala etxera-bidea artu eban.

Bigarrena azokara joan zan aragi billa. Ari bat urruntxotik ikusi ta pozik urreratu

zan beragana. Laster egin eban egiunea (tratu) bere yaubeagaz.

—Erdi neugaz, gizon, eliza orretaraxe. Ortze dago nire ugazaba ta laster dozu eskuan dirua. Egon ementxe —esan eutsan elizperatu ziranean—, neuk abadea bertora ekarriarte.

Urrunengo konfesonariora (autortegira) joan zan.

—Jauna: an ate-ondoan agiri dan gizona konpesetara dator. Dirua ta dirua noizean bein aituko dautso. Gizaixoa gitxirena (ergela) da.

Etorteko esan egiok.

—Yoateko dino —zirautsan gero estudianteak ari-yaubeari—. Antxe, zokondo atakoxe konpesanarioan dago.

Saltzaillea urreratu ta zutun-zutunik eta isil-isilik egoan.

—Belaunikatu adi —esan eutsan abadeak.

—Diru-billa nator, jauna.

—Ze diru ta diru-ondo?

—Ariaren dirua.

—Esaik gizagaixo orek ni pekataria, dirua geroko itxita.

—Dirua bear dodala. ¿Elizetan bere lapurretak?

Abadea musturtu dakoan ta zokondoan eukan makileaz (errera zan bera ta pipermina lakoxe sutua) erdi alarauka elizatik atara eban.

Orduko iges eginda egoan eroslea ari ta guzti. Batek badaki nondik nora joan zan.

Irugarrena azoka-inguruko okintza baten sartu zan. Ogi eder bi erosita,



—Erdi dirua artzera neure ugazabaren etxera —esan eutsan yaubeari.

Andik urtxo bizi zan berberu batenera joan ziran biak.

—Zagoz ementxe, goian naizan artean. Ogi-yaubea atetan itzi ta estudiantea goira. Atean ofs eginda,

—¿Nor da? —esan eutsen.

—Neu. Atarian gizon bat dago labatibea nai leukeala-ta.

—Egoteko apur baten. Gertu dagonean dei egingo dakola esaiok.

Yatsi zan estudiantea.

—Eurak dei egingo dautsuela ta egoteko.

Egon ta egon, luzaro eritxon ogidunari ta alako baten kisketari (aldabeari) ofs andi batzuk eraginda,

—¿Gertu gagoz? —itaundu eutsen goikoari.

—Alako estualdia daukagu? Erdi.

Eldu zaneko,

—Kaltzak erantzizuz —esan eutsan barberuaren semeak.

—¿Ze kaltza ta kaltzaondo? dirua bear joat nik.

Aita-semeen artean oratuta, kaltzak bera-tuaz emon eutsen zer ori ta saritzat peseta bi katanarrutik atara eraginda, bere bidean bidaldu eben ogiduna.

Iru estudianteak, alkar bat eginda, okotze-ragiño bete arteko yan-edana egin eben iluntze atan.



PACEM

in

TERRIS

Urte bi igaro dira Juan XXIII-grren. Aita Santuak "Pacem in terris" enziklikea gaz aberrieri ta gizon bako txari bardintasunean jasoko alkar bizitz zintzo baterako deia bialdu ebanetik. Aprilla-ko II-an igaro ziran urte bi orreek.

"Pacem in terris" gaur be —apur bat zapaldu ta aztuta euki arren— beardan alkar bizitzarako bide aundi, zabal ta eginkora dogu. Zera baieztu gura eben Naziño Alkartuen Batzarrerako Sekretario dan U Tant-ek, Norteamerikako Lendakari-ordezkoa dan Humphrey-ek, kondairaidazlerik ospetsuena dan Arnold Toynbee-ek t. a. enziklikea onen dotriñak ikasi ta munduari barrero eskeinduteko asmoan New York-en batzarrean batu ziranean.

"Gizonak alkar maitatuko balira..." Asmo naiko zarra auxe. Betikoa, obeto esateko. Alan da be. iñoiz benetan lortu bakoa. Izango ete da ezin lortu daitekena?

Sarri entzuten da: Bakoitxa norberari jagokozan arazoe-

tara. Besteen arazoetan eztago sartu bearrik. Norberak daki beintzat jakin bear leuke zer egiten dauan. Urkoak neure gauzetan ez dauko zer ikusirik, t. a. Idei onekaz konforme enziklika onen dotriña. Alkar bizitz zintzo au egi, maitasun, justizi ta askatasunean egindakoa izan bear dala diñosku Juan XXIII-grren Aita Santuak. Beraz, lau izakera, ta laurek bear-bearrezkoak; ori txar eta gatxena! Askotan, justizia, gizarteko aurre-raphenak edo basteren bat billatu gura izaten da, baiña bide okerretik. Esate baterako, bakea billatu gura bada, edonon bilduteko eskubidea gizonari ezin deikio iñork kendu erazi. Ezta norberen asmoen aurka joan da be.

Eztago esan bearrik be: mundu guztiari esatea, aberri bakoitxari esatea lez da. Egi au aztu ez ete da egiten nago. Ori: aztu. "Pacem in terris" orain urte bi jaio ume illa dala idatzi dau baten bategen. Arrazoirik ez jako falta idatzi dauan orreri. Zeraxe

diñoskue egiteak be. Gure artean be badoguz ideia ori baieztuteko naiko egite. Zorritzarrez aztertuteko eztaukagu iñora joan bearrik.

Aberrietako buru-nagusiak daukee enziklika onetan ikusten danez zer-egin berezi bat. Euren dira izan personaren eskubide ta bete-bearrak gorde ta erreztuteko bideak jarri bear dabenak. Bide orren lenengo maillea eskubide ta betebear danak ikustatutea izango da duda barik. Gaur bide ori leku guztietan naiko pranko zapalduta dagoala esatearren nago. Izan be illetargirako bideak ikasten gabiltzan bitartean, mundukoak aztuten gagoz kezka aundi barik. Ori bai dala ankaz gora ibiltea!

Norberaren eskubideak oroi-tu ta eskatukoan eztago lotsakeri edo zikinkeririk. Esatea be naiko barre egiteko da izan. Alan da be, egi utsa da eta baten baiño geiago beteten ez dana. Begiak idi ta ikustea baiño eztago. Gizartearen ontasuna ezin leike gizonari jagokozen eskubideen aurka joan diño Juan XXIII. Gaurko egunetan —diñosku beste batean— gizarteko ontasun au gizonaren ekubide ta egi-bearrak asetutakoan beteko da bakarrik.

Kijote-jendea bear da enziklika onen bete-bearrak aurrera eroateko seguru. Jainkoari eskerrak kijote txalogarri onen ikasbide sendoak ez jakuz falta gaur egunetan be, kemen bako gizajoak naiko ugariak izan arren. James J. Reeb ta Viola Liuzzo-ren izenak ezagunak izango jatzuz oraingokoan. Biak izan dira illak baltzaren eskubideak aurrera aroan erazitearren. James Reeb, Bostongo artzai protestantea ta lau semeen aita. Selma-n billatu dau eriotza oraintsu egon diran iskanbilletan. Viola Liuzzo —Chikago-koa, ta bost semeen ama— Montgomery-ko martxa ospetsura joan asmo bardifiekaz, ta ekiñaldi onetan il zan. Gizon oneik benetan dira "Jaungoikoaren gizonak". Ta ez uste neure esate bat danik, Jonhson lendakariak Kongresoaren aurrean esandakoa da. James Reeb il ebela entzun ebanean.

Ikasbide oneek billatuteko eztago Ipar-Amerikara joan bearrik. Gure artean or-emetik daukaguz ixiltasunean egon arren. Erdi zoroak dirala pentsatuko dozu bear bada. Bada ezpadan, gogoan euki ustegin daikezula.



**BI
GA
RREN

UR
TE
AN**

ALMIKE - ri

JOAN M. TORREALDAY-K

Azken-urreko zenbaklan, bosgarren orrialdean, "Euskeraren akatsak" titulutzat da-roan idazlan bat irakurri neban. [ikus ANAITASUNA, jor-railla (4), 1965]. Almike da bere egillea. Aretxeri erantzutera noa, ba, ni, oraiu. Beno, erantzutera baiño obeto bere bierra osotutera noa-

gatxa baiño gatxagoa dala orren lortzea, bide ortatik beintzat. Beeragotik asi bear da orretarako. Eskolatik. Umeari txikitatik eskolan erakutsi bear litzakioz ezagutza guztiak euskeraz. Euskeraz. Umetatik asita gerora jakintza guztiak euskeraz bereganatu daiazala euskaldunak,

tik euskera ta euskeraz ikasi ezkerero. Batasun ori lortzekotan, gaiñera, ez ete leike izkuntza ofizial bat eskoletan erakutsi ala? Alan egin dabe beste erriak be. Ta besteak baiño gitxiago ez gara izatez.


2º.—"Garbikeria". Euskera ez ezagutzean, edo garbikerira —berba barriak jo ta ke asmatutera— edo mordollokerira —beste izkuntzetatik datozen moduan onartzera— jo leiteke. Oifura zaarra dogu au. Euskerarik ez deuskuelako erakutsi —ta beraz orain be bear dan moduan ez dakigulako— egiten dogu pekatu or, nire ustez.

3º.—"ezer ez esatea". Ta zelan esan leike, ba, ezer, zelan esan ez jakiñik? Ez da gauza erreza. Zenbat biderrez jaku

batu dauanak, ba daki olako zeozer. "Kontuak", ipuiñak, errezagok dira askotaz be. Ta orregaitik dagoz egon be ain ugari euskeraz. Olerkiak be ugari dagoz: mendiak, lo-reak, arbolak, ostoak, eguzkia, laiñoak, illetargia; ta olan beti. Bai ba, errezenera goaz-ta.

4º.—"ez irakurtea". Asiera falta ezkerero, jarraipenik be ez dator. Ta emen, bardin, Euskeraz ezer egitekotan, bakoitzak ikasi bear dau bere pazientziaren kontura. Asko ta asko ez dira euskeraz leituden asteko gauza, txikitatik ez jakelako erakutsi ta ikasi-arazo. Emen dago errua.

[Argigarri lez: gure arteko uts ta akatsen zergaiti lez eskola-falta jartzean, ez dot



la esan daiket; ze, nire ustez, azalean geratu da Almike.

Dakazan akatsak euskerearen arerioak dirala diñoanean konforme nago beragaz. Baiña bizi dogun unea kontuan artzen badogu, akats orreitan geratzea denpora galtzea deritxat. Sakonago joten ez badogu "gure ele au bere puntu egokian noiz arkituko litzaken adieraztea" eziñezko gauza da. "Akatsen akatsera-edo" joan bear gara. Sustraira, beera, sakonera, azken-arrazoira. Zergaitik ori? Ba, ara: sustraiak ebagi ezketiño, laster dogulako zugaitza igarturik.

Lau akatsok auetxek dira, aren iritxiz: "batasunik-eza", "garbikeritasuna", "ezer ez esatea", "ez irakurtea". Esan dotana: azala, adarrak. Egia da bai, gaixotasuna kanpotik agertzen da, baiña barrundik dabil arra azpi-lanean. Kasu onenean be, lau akatsok, nire ustez, seiñale batzuk leitekez, barruko gaixotasuna nun dagoan igarteko lagundu deikiguenak.

Euskera arloan, euskaldunak egin eikean bierrik geiena, oraintsuarte —eta oraindiño be bai, sarritan— euskal aldizkarietakoa izan da. Aldizkari ta libruen bidez lortu gura izan dira —esaterako— euskeraren batasuna, ta orrelako ez dakit zenbat asmo eder geiago.

Baiña bein da barrero gure kondairak erakutsi deusku

ori euskeraren irauteak eskatzen dauana da. Ta ori lortzen ez dogun artean, txistua jota ez dogu ezer egiten.

Ba doaz eskola batzuk bierrean; ta eskertzekoa da benetan. Baiña zer da ori, ba, ainbeste jendeentzat? Euskalerrri irakastola dantantan ofizialki emon bear litzake euskera, erdal-errietan erdera emoten dan lez, eta euskeraz emon bear litzakez jakintza-ezagutzak, euskera izkuntza lez aurrera doiala gura badogu.

Ikusi daiguzan orain ia Almike-ren lau akatsok, eskolaren aurrean:



1º.—"Batasunik eza". Bata-suna erdiestea askoz be errezagoo litzakigu, bein txikitat-

errezagoo geure ezagutza-apurrok erderaz adieraztea, euskeraz egin bearrean! Gaiñera, jakintza-arloan, esate baterako, berbak falta jakuz, ta nor-

bera, bein da barrero ta bakoitzean, asmatzen ibil bearra ez da gauza polita. Pro-



esan gura ori arrazoi bakarra danik. Itsukeria litzake, izan be. Nork ukatu, ostera, eskolarik ezean dagoela gure sustrai ustela?

Eskolaren garrantzia begien aurrean dago. Umearen bide ta jokabideak eskoren bide ta jokabideak askolan dauke sorburua, geienbat. Zergaitik joten dabe, ostantzean, komunistak ifiora baiño arifago eskola ta unibersidadeetara? Zergaitik, orrexegaitik!

Egin daigula bakoitxak aal doguna, ainbat lasterren izan daiguzan bear diran beste eskolak. Bakoitxak jakingo dau ze jokabide artu, orretarako.

Biotzez,

erantzuten